

bai

ziurtagiridunen
aldizkaria

15. alea
2014ko abendua

Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua
Bittor Zarrabeitia
Foru Plaza 3 (Udaletxeko 1. solairua)
48300 Gernika-Lumo

Aner Garmendia:

“Euskarak konpromisoa eragiten du,
taldearen kohesioa; horri esker ere
lortzen da arrakasta”



Lazarraga
Sariak
2014



Gernika-Lumoko 32 entitatek jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak zazpigarren urtez banatu zituen ziurtagiriak abenduaren 2an, Gernika-Lumon. Udalerriko 32 enpresak, komertzioak eta era guztietako entitateek jaso zuten ziurtagiria.

luz Ziurtagiria jaso zuten guztiek berri dute aurten ere euskararekiko konpromisoa eta horiei berri bat gehitu zaie aurten, uztailean ziurtagiria eskuratu zuen Gernikako Nota-

ria. Hala, guztira 32 izan dira aurten banatu diren ziurtagiriak.

Espazioak euskararekin betetzen Elai Alai aretoan egindako ekitaldian parte hartu zuten ziurtagiridunek, udaleko ordezkariak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko ki-deek.

Ziurtagiriaren Elkartearen izenean Rober Gutiérrez zuzendariak ziurtagiridunak zoriondu zituen "espazioak euskararekin betetzen" ari direlako eta eskerrak eman zizkien Gernikako Udalarari, euskalgintzari eta Artezi urte hauetako elkarlana "emankorra" izan delako. Gutiérrezek Ziurtagiriaren Elkarteak aurrera begira dituen helburuak ere azaldu zituen: "Etorkizunean alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten segitu nahi dugu eta, orain arteko datuak hobetu nahiko genituzke. Eta helburu horretan, zuek guztioz bidelagun nahi zaituztegu" ●

Euskararen aldeko lana aitortu zitzaien Errenteriako ziurtagiridunei



Errenteriako 24 ziurtagiridunek Bai Euskarari Ziurtagiriak jaso zituzten azaroaren 14an, Rober Gutiérrez elkarteko zuzendariaren eskutik. Gutiérrezek eskerrak eman zizkien Errenteriako Udalarari, Errenkoalde merkatarien elkarteari eta Lau Haizetara Euskara Elkarteari, maiatzean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren fruitu izan baitira ziurtagiri berri horiek. Era berean, eskerrak eman zizkien guztiei alor sozioekonomikoan euskararen normalizazioan eragiten bakoitzak bere esparruan jartzen duen hondar-alearengatik.

Errenteriako ziurtagiridunak elkartu ziren Errenteriako udaletxeko pleno aretoan, han izan ziren Errenteriako Udaleko ordezkariak ere, entitate hauek euskararen alde egin duten ahalegina aitortzeko. Denek batera familia argazkia egin zuten. ●

LAN sarean
bilalan

www.lansarean.eus

 @lansarean



Enpresa eta profesional euskaldunak harremanetan jartzeko **webgunea**

- Lan bila zabilta?
- Lana eskaintzen duzu?



Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz